

550 egileren berri bildu du bertan Ikastolen Elkarteak

Euskal Literatura Idatzia, gaiari buruzko lehen CD-ROMa

Ikastolen Elkarteak *Euskal Literatura Idatzia* kaleratu du, euskal literaturari buruzko lehen CD-ROMa. Bertan 550 egileren inguruko lanak bildu ditu. CD-ROM honen bidez erabiltzaileak egile bakoitzari dagokion testuinguru historikoaren informazio dena izateko modua du, izan ikuspegi politiko-tik, ekonomikotik, sozialetik eta kulturaletik. Bestalde, hamai-ka gairen arabera ere bil daiteke informazioa: garaia, egilea, jeneroa...

Bereziki deigarri da bideoaren erabilera. Izan ere, horren bidez egungo 24 egilek beraien lanetako zati hautatuak irakurtzen dituzte. CD-ROMak berrehun zati ere jasotzen ditu, euskal literatura idatziaren mapa kontzeptuala barne, bai eta historia, baliabide eta jeneroen berri zehatza ere.

Oinarritzko dokumentazioa bi liburutatik bildu dute egileek: Joan Mari Torrealdaien *Euskal Idazleak Gaur* lanetik, batetik, eta Xabier Mendiguren Elizegi eta Koldo Izagirreraren *Euskal Literaturaren Antologia* liburutik, berriz, bestetik.

Euskal Literatura Idatzia argitalpena euskarazko literaturaren zale direnei dago zuzendurik baina, bereziki, Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleei.



European kantari

The Pub Ibiltariaren lehen artxiboa

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

Orain bost urte abiarazi zuen Oskorrik "The Pub Ibiltaria". Azkenengo bost urte honetan, eta Santo Tomasekin bat eginez, kontzertuak grabatu ditu, gero eta musikari eta kantari gehiagok parte hartu duela. Bost CD dira emaitza, behin-behinekoa, Oskorrik aurrera egiteko asmoa baitu, kantu asko gehitzeko.

Orain arte emandakoak ez ahanzteko eta erraz gogoratzeko, berriz, egun arte argitaraturiko denak poltsiko-koaderno itxuran bildu dituzte, kantari ari nahi duenak eskuragarri izateko dela afari, txango edo lagunartean. *European kantari* (*Singing in the rain*) dugu liburuttoaren izena, eta letra txikian, "Lasai desafinatzen 87 kantu" dio.

"The Pub Ibiltaria"-ren lehen artxibo honek kanten partituras, hitzak eta gaztelaniazko eta frantseseko itzulpenak dakartza. *Agur jaunak!*, Aitorren hizkuntza zaharra, *Ikusten duzu goizean*, *Itsasoa laino dago*, *Salamanca*, *Ziburutik Sarara* eta beste kanta zahar asko berritzeko aitzakia, Oskorriren eskutik.



EUSKARAREN Berripapera

aurkibidea

1 • Euskararen azpiegitura estrategikoak

2 • **PROTAGONISTA:**
Juan Garmendia
Larrañaga

• **LABURRAK:**
Iruñeko Udalaren
haur-literatura
lehiaketa
Larreko sariak

• **AGENDA:**
Euskadi Sioux
erakusketa

3 • *Xiberoko Makia*
pastorala

• Escòla Occitana
d'Estiu

4 • Euskal literatura ida-
tziaren CD-ROMa

• Oskorri eta
Euripean kantari

Euskararen azpiegitura estrategikoak

Euskararen azpiegitura estrategikoei lanerako baliabide duinak eskaintzeko ahalegin berezia egin du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), azken urteotan, euskararen normalkuntza bizkortuko duen ikerketa-politikari bultzada berezia emanaz.

Hainbat urtetarako hitzarmenak

Ildo horretan, iaz lehen aldiz, HPS-k urte anitzetarako hitzarmenak sinatu zituen Labayru Ikastegiarekin (Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera), Euskal Idazleen Elkartearekin eta Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearekin. Aurtengo uztailean hitzarmen horiei atxikitako protokoloak ere sinatu dituzte. Protokoloetan 2001 urtean zehar elkarte bakoitzak burutuko dituen lan-egitasmo zehatzak azaltzen dira eta lanok aurrera eramateko erakundeek elkarrekin lutzatuko dizkieten dirulaguntzak.

Iazko udaberrian, Euskaltzaindiaren lan-egitasmo nagusiak (lexikografia, gramatika, hizkuntza atlasa, herri literatura, onomastika...) indartzeko asmoz, batetik Euskaltzaindiaren eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikotako Foru Aldundien artean bost urterako hitzarmena izenpetu zuten. Aurten, 2001eko apirillean, hitzarmen horri atxikitako protokoloa sinatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek batetik eta Euskaltzaindiak bestetik.

Euskarazko komunikabideentzako laguntzak

Euskararen sustapenean urrats sendoak eman dira, orain arteko diru-baliabideak nabarmen gehituz: euskarazko komunikabideak sustatzeko laguntzak gehitu dira (guztira 645.000.000 pta / 3.876.528 euro banatuko dira 2001ean) nazio, eskualde zein toki mailako prentsa, irrati, telebista eta Interneteko ekimen guztiak dirulaguntza deialdi bakar baten pean egituratuz.

Diru-banaketa era honetara egin da: 275 milioi pta eguneroko prentsarako; 77 milioi pta astekarietarako; 34 milioi pta haur eta gazte aldizkarietarako; 57.268.808 pta bestelako aldizkarietarako; 60.045.353 pta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-aldizkarietarako; 47.746.565 pta irratiarako;




euskarazko herri-telebistarako 2001. urterako 25.000.000 pta eta 2002. erako 50.000.000 pta; eta multimedia taldeak sendotzeko edota euskarazko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sendotzeko egitasmoetarako, azkenik, 18.913.125 pta. Deialdian haur eta gazte aldizkariaren alorra indartu izana azpimarratu behar da. 2001eko deialdian 12 argitalpen gehiago aurkeztu dira.

Euskalgintza deialdia

Euskalgintza dirulaguntza-deialdiaz ditugun eskaera guztiak asebetzetik oraindik oso urrun bagaude ere, 126 eskaera babestu dira. Guztira, 134.000.000 pezeta / 805.356 euro banatu dira. Gisa honetara egin da: euskararen ondarea jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauetan 15.438.759 pta; gazteentzako euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimenak bultzatzeko 55.265.938 pta; euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauetan 14.634.318 pta; euskararen erabilera aisian, haur eta gazteen hizkuntza gaitasuna sendotzeko antolatutako egitarauak, monitorien prestakuntza, material-sorkuntza, produktu konkretuen gaineko bideragarritasun azterketak, euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsonaia omentzeko edo bestelako ospakizunak antolatzeko jardueretan 40.198.504 pta;

Laburrak

Iruñeko Udalaren haur-literatura lehiaketa



500 izan ziren ikastetxeek sarietara hautagai aurkeztu zituztenak.

Iruñeko Udalak argitaratu berri du 2000. urteko udaberrian burutu zen XIII. haur-literatura lehiaketaren lan irabazleak biltzen dituen argitalpena. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek hartu ahal izan zuten parte, hiru arlotan: marrazkia, ipuina edo komikia. 2.500 bat haurrek hartu zuten parte lehiaketan, eta horietatik

Larreko sariak



Euskararen aldeko jarrera izan duten 58 udalerrietako alkateek jaso dute aurtengo Larreko saria. Euskalerrria Irratia Elkarrekin banatzen duen saria joan den ekainaren 15ean banatu zen Iruñean egin zen lagunarteko afari handian. Sariak Pablo Fermin Irigarai Larreko, mediku eta idazlearen izena ohoratzen dute.

Agenda

Euskadi Sioux erakusketa

“Euskadi Sioux. Umorea eta disidentzia Euskal Herriko trantsizio politikoan” da Bilboko Bidebarrieta liburategian jarri duten erakusketaren izena. Euskadi Sioux aldizkaria 1979. urtean sortu zen Gipuzkoan, musika, literatura eta arte munduko hainbat lagunengatik ekimenez: Bernardo Atxaga, Jon Zabaleta, Rosa Valverde, Bixente Ameztoi, Antton Olariaga... Urtebete iraun zuen eta zazpi zenbaki kalera-itu zituen. Erakusketa hau iraila arte izango da zabalik.



PERTSONAJEA

Juan Garmendia Larrañaga, Eusko Ikaskuntza- -Euskadiko Kutxa saria:

“Lekuko bat hiltzen denean,
entziklopedia oso bat galtzen da”



ZALDIERO

Juan Garmendia Larrañaga etnologo tolosarrak jasoko du 2001. urteko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria euskal kultura herrikoia ikertu eta zabaltzen egindako lan handiarengatik.

Juan Garmendia Larrañaga (Tolosa, 1926) zorte handiko gizona izan da. Gaztetan Merkataritza Ingeniaritza ikasi arren, ez zuen behin ere lan horretan jardun. Afizio zuena egin zuen lanbide: etnologia. Joxe Miel Barandiaran izan zuen lehen irakasle eta, gero, berriz, Satrustegi, Caro Baroja, Mitxelena... 57 urte zituela Geografia eta Historia lizentziatura lortu zuen eta handik urtebetera doktore genuen Antropologia Filosofikoan, lexikoari buruzko ikerketa tarteko. Euskaltzain urgazle izendatu zuten lan honen ondorioz.

Garmendia Larrañagak herrietako jaiak, jolasak, hileta-elizkizunak, artisautza eta herri-medikuntza ikertu ditu hainbat argitalpenetan: *Ume jolasak, Iñauteria, El pensamiento mágico vasco, Costumbres y ritos funerarios en el País Vasco, Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco, Jentilak, sorginak eta beste, El mendigo, Estudio histórico-etnológico, Rituales y plantas en la medicina popular vasca, Conjuros no siempre ortodoxos...* Informazioa biltzeko asmoz hainbat jende elkarrizketatu du. Horixe gustatzen zaio gehien: herriz herri ibili eta jendea elkarrizketatzea. Berak guztiz aintzakotzat hartzen du elkarrizketatu dituen adineko pertsonen balioa: “Lekuko bat hiltzen denean, entziklopedia oso bat galtzen da”. Dena den, artxibo eta liburategietan ere ordu asko eman ohi ditu.

Berrogei liburutik gora argitaratu ditu eta, aurtengoa berean, bizian zehar bildu dituen gertaera historiko eta etnografikoen bilduma osoa kalera-itu du. Artikuluak ere hainbat idatzia da, eta hitzaldi eta biltzarretan ere eurrez hartu du parte.

Xiberoko Makia, aurtengo pastorala

Zuberoatik kanpo Euskal Herrian errorik egin ez duen antzerkia


Joan den hilaren 15 eta 21ean Sohütan eman zuten Jean Louis Davanten *Xiberoko makia*, aurtengo pastorala baita, eta hil honetan ere ikusgai izango da, aurtengoz azken aldiz.

Beñat Oihartzabal irakaslearen arabera pastoralak Erdi Aroko Europako misterioen urruneko hondarrak dira, Frantziako nekazari antzerkiaren bidez Zuberoara helduak. Ez dirudi Zuberoatik kanpo Euskal Herrian inoiz ere errorik egin duenik, eta ez da segur ere noiz hasi zen Zuberoan. Hitzaren lekukotasunik zaharrena Oihenartek 1665ean egindakoa da. Idazleak Jean de Etchegaray izeneko anaia aintzen du frantsesezko idazlan

pertsonaje nagusiak), mendebaldeko Europa turkiarren beldur zen garaia aipatzen dute, XVI. mendea alegia.

Egun, berrogeita hamar obra baino gehiagori dagozkion eskuizkribuak dira gordearik, gai erlijiozkoak gehienak, bai eta pertsonaje historikoen gainekoak ere.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Etxahun Irurik berpiztu zituen pastoralak. Harrezkero, bizirik irauten du Zuberoako pastoralak eta Junes Casenave, Jean Louis Davant, Roger Idiart, P.P. Berçaits eta beste ari dira tesueten idazten.



(*κρητικακ* eta *turkak* baita pastoraiaren

"Una setmana occitana per totis!"

Escòla Occitana d'Estiu

Udako Eskola Okzitaniarrak kultur astea antolatu du Vilanèva d'Òlt herrian, abuztuaren 19tik 25era. Bertan, hizkuntza ikasi ahal izango du bertaraten denak: okzitaniera-ikastaroak (ikastaro arrunta eta trinkoa aukeran), dialekto-ikastaroak, katalanera hastapen-ikastaroa...

Kultur ikastaroak ere izango dira: historia, literatura, ekonomia, artea, irakaskuntza... bai eta hainbat lantegi ere, botanikaz, sukaldaritzaz, kantagintzaz, dantzaz, ipuingintzaz, onomastikaz, informatikaz, Internetez, irratingintzaz...

Nautafaja La Tor herriko Picapol-eko Kultur-zentroa da antolatzaileria. Informazio gehiago, zentroko e-posta helbidean: Escola@wanadoo.fr edo

"Una setmana occitana per totis!"

27ena

Escòla Occitana d'Estiu

19 - 25 d'agost de 2001

47300 VILANÈVA D'ÒLT

Tel. : 05. 53. 41. 32. 43.